

Deklaratzailea

declarativo / déclaratif / declarative

1. Perpaus deklaratzailea baiezko perpausari deritzo.

2. →Baiezen baten →enuntziazio garbi eta →bakuna adierazten duten →aditzak *aditz deklaratzailerak* deitzen dira, esate baterako, *esan, kontatu, iragarri* e.a. Eritzizko aditzek, horiei aurkajarriaz, ondoko baiezena ez dela onartua (*uste izan*) inplikatzan dute, eritzi soiltzat (*eritzi*) eman dela, alegia.

Deklinabidea

→Izen-→lexemak jasaten duten itxura-aldaketari deritzo deklinazioa (→izenordeak, →adjektiboak, →izenak). Aldaketa horiek →sintaxi-erlazioen arabera gertatzen dira (cf. →kasua), eta sarritan bestelako →gramatika-→kategorien →menpekotasunaren arabera: →*zenbakia*, esate baterako (latin, turkiera, euskara...) [± mugatua] (euskara), etab.

Hizkuntza sintetikoen →ezaugarri berezi berezia da. Hauen artean desberdintasun asko dago: bai →paradigma barruko forma-kopuruari dagokionez, bai beren artean eta →erroarekin →morfema desberdinek erakusten dutenATEGITE-mailari dagokionez ere, hizkuntza hauek sailkatzerakoan →tipologiak erabiltzen duen erizpidea, hain zuzen.

Turkierak, hizkuntza →eransle jatorra denez, oso ongi bakantzen ditu →morfologi osakinak (→bokal-harmonia alde batera utziaz), eta bi numeroetan kasu-morfema berbera erabiltzen du. Hizkuntza indoeuroparrek, aldiz, →flexiozko hizkuntzak direnez,ATEGITE-maila handia dutelako →alomorfoak erabiltzen dituzte kasu berean numeroaren arabera (lat.: *domum* akus, sg., *domos*, akus. pl.), →generoaren arabera (lat.: *domini*, nom. pl. mask.; *templa*, nom. pl. neut.), eta →enborraren bukaeraren arabera (lat.: *dominis, rebus*, biok dat./abl. pl.).

Bigarren hizkuntza-mota hauetarako, tagmema-bidea ez da egokia; →hitz gramatikala ezin bait da arbitrarietaterik gabe lakaindu →morfema fonologikoki identifikagarri eta →funtzio eta →esanahi bakarrekotan. Egokiago gertatzen da, gertatu, batera ari diren →ezaugarri-

→matrizen bitartez →erregela morfonemikoak erabiltzea. Bi bide horietako lehenengoak (Hockett: item and arrangement) morfema aitortzen du oinarriko unitatetzat, eta bigarrenak (Hockett: word and paradigm) →hitza. Gramatika →sortzailean helburu honekin prestatzen dira prozesu morfologikoak.

Aipatutako hizkuntzen sailkapen horrek, dena dela, balio erlatiboa besterik ez du, ez bait dago mota garbi-garbirik: ingelesak, oso analitikoa izanagatik ere, →pluralaren osaketan eta →izenordeetan (I/me; mouse/mice) →flexio-arrastoak baditu oraino.

Hein handi batez, →singularrean eta pluralean, kasu-→atzizki berberak erabiltzen ditu euskarak; baina →erroari dagokion morfemak lakaintzen ez da beti posible izaten: zenbakia, determinazioa, kasua. Mendi-a-(r)i: Erroa + mug. + Ø + dat.; mendi-e-i: erroa + Ø + pl + dat. Hori dela eta, →homofonoak gertatzen dira; hala nola mendiak: abs. pl. eta erg. sg.

Funtsean lexemaren →esanahiari lotuta dauden →alomorfoak ere badira; esate baterako, bizigabeetan *-antz norabidekoan*, edo-ta pertsonakoetan *-engana*.

J. L. Iturrioz
Itz.: Txillardegia

Deliberatzailea

deliberativo / délibératif / deliberative

Hitz egitean, →subjektuak hartu behar duen erabakiaz egiten dituen galderak adierazteko balio duten adizki eta perpaus *deliberatzaileak* deitzen zaie. Euskarazko *zer egin?* esateko; adibidez latinez subjuntiboa erabiltzen da forma deliberatzaile bezala: *quid faciam?*

Denbora

tiempo / temps / tense

→Aditzaren azterketa egiten denean, →gramatika-→kategoria batzu aurkitzen dira. Hauetako bat, nagusietakoa, *denbora* da; eta →ekintzen denboratasunari dagokio. Denborari dagokionez, →oposizio hau egin daiteke:

orainaldia ≠ ez-orainaldia

Baina →orainaldia ez dena, →lehenaldia izan daiteke, edo-ta →geroaldia (= etorki-